

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2021eko azaroa

Euskal AEko landetxeetako okupazioa hamaika aldiz handitu da 2021eko azaroan, eta apartamentu turistikoetan 2019ko kopuruak gainditu dira

Estatuko jatorria duten pertsonen nagusi izaten jarraitzen dute, aurreko hilabeteetan bezala

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko **landetxeetan** 2021eko azaroan 7.666 sarrera eta 17.712 gaualdi izan dira.

Landetxeen jardura suspertu egin da aurreko urteko hil beraren aldean: sarrerak % 1.000 baino gehiago igo dira, eta gaualdiak ia % 500. 2019ko azaroarekin alderatuta, Euskal AEn, hil honetako sarrerak garai hartakoen % 81,1 izan dira, eta gaualdiak hilabete hartan zenbaturikoen % 85,0, Covid-19aren pandemiaren aurretik.

Euskal AEko landetxeetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta betetze-mailak. 2021eko Azaroa

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2021/11	m/m-12 (%)	2021/11	m/m-12 (%)	2021/11	2020/11	plazaka		gelaka	
							2021/11	p.p.*	2021/11	p.p.*
EUSKAL AE	7.666	1.077,6	17.712	487,1	2,31	4,63	13,7	10,9	16,4	11,0
Estatukoak	6.928	1.107,0	16.148	508,7	2,33	4,62	-	-	-	-
Atzeritarrak	738	858,4	1.564	329,7	2,12	4,73	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	1.542	1.851,9	3.136	712,4	2,03	4,89	9,8	8,3	12,1	9,0
Estatukoak	1.436	1.764,9	2.916	659,4	2,03	4,99	-	-	-	-
Atzeritarrak	106	5.200,0	220	10.900,0	2,08	1,00	-	-	-	-
BIZKAIA	2.106	932,4	4.808	568,7	2,28	3,52	13,1	10,6	16,0	10,8
Estatukoak	1.846	942,9	4.310	558,0	2,33	3,70	-	-	-	-
Atzeritarrak	260	863,0	498	678,1	1,92	2,37	-	-	-	-
GIPUZKOA	4.018	991,8	9.768	410,9	2,43	5,20	16,1	12,5	18,9	12,3
Estatukoak	3.646	1.039,4	8.922	452,8	2,45	5,04	-	-	-	-
Atzeritarrak	372	675,0	846	183,9	2,27	6,21	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Euskal AEko landetxeetako sarreraren % 90,4 eta gaualdien % 91,2 Estatukoak izan dira. Atzeritar jatorriko pertsonak, urtetik urtera gora egiten jarraitzen badute ere, sarrera guztien % 9,6 eta gaualdi guztien % 8,8 baino ez dira.

Lurraldeka, urte arteko gehikuntzak bereziki handiak izan dira Araban: 1.542 sarrera eta 3.136 gaualdi izan dira; kopuru erlatibotan, % 1.851,9 eta % 712,4 gehitu dira, hurrenez hurren. Gipuzkoan eta Bizkaian, 2021eko azaroan, sarreraren kopuruaren urte arteko igoera % 991,8koa eta % 932,4koa izan da, eta 2.106 eta 4.018 sarrera erregistratu dira, hurrenez hurren, lurralde bakoitzean. Gaualdiei doakienez, Gipuzkoan 9.768 izan ziren, % 410,9 gehiago, eta Bizkaian 4.808, % 568,7 gehiago.

Euskal AEko batez besteko egonaldia horrelako establezimenduetan 2,31 egunekoa izan da, 2020ko azaroko batez besteko egonaldia (4,63 egun) baino txikiagoa, baina 2019ko azaroko 2,21 eguneko egonaldiaren gainetik.

Plazakako eta logelakako betetze-mailek ehuneko 10,9ko eta 11,1eko urte arteko hazkundeak izan dituzte, hurrenez hurren, eta % 13,7tan kokatu da plazaka neurtuta eta % 16,4tan logelaka.

Apartamentu turistikoei dagokienez, 2021eko azaroan, sarrerak eta gaualdiak 6.495 eta 32.720 izan dira, hurrenez hurren. Aurreko urteko azaroaren aldean, sarrerak % 305,8 gehitu dira, eta gaualdiak % 140,3. Balio horiek 2019ko azaroan lortutakoekin alderatzean, % 9,0 igo dira sarrerak, eta % 52,9 gaualdiak.

Sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta betetze-mailak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. 2021eko Azaroa

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2021/11	m/m-12 (%)	2021/11	m/m-12 (%)	2021/11	2020/11	plazaka		apartamentuka	
							2021/11	p.p.*	2021/11	p.p.*
EUSKAL AE	6.495	305,8	32.720	140,3	5,04	8,51	29,2	14,3	58,7	25,8
Estatukoak	4.987	253,4	22.779	116,5	4,57	7,46	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.508	695,6	9.941	221,1	6,59	16,33	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	738	72,1	7.326	38,1	9,93	12,38	25,1	4,7	69,2	9,8
Estatukoak	654	59,7	5.245	15,9	8,02	11,05	-	-	-	-
Atzeritarrak	84	336,5	2.081	167,1	24,79	30,00	-	-	-	-
BIZKAIA	4.147	468,5	9.830	118,9	2,37	6,16	23,8	9,7	40,2	2,9
Estatukoak	3.065	353,6	6.711	113,5	2,19	4,65	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.082	1.909,0	3.119	131,4	2,88	25,02	-	-	-	-
GIPUZKOA	1.611	263,8	15.564	307,1	9,66	8,64	37,4	25,9	65,6	46,1
Estatukoak	1.269	288,9	10.823	279,1	8,53	8,75	-	-	-	-
Atzeritarrak	342	193,5	4.741	389,4	13,87	8,32	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urtearekiko ehuneko-puntu aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Estatuko sarrerak Euskal AE osoko sarrera guztien % 76,8 dira, eta Estatuko gaualdiak, berriz, guztien % 69,6. Bi aldagaiek urte arteko hazkunde esanguratsua izan dute: % 253,4 sarreretan eta % 116,5 gauldietan. Atzerriko jatorriko pertsonen sarrerak eta gaualdiak, intentsitate handiagoz berreskuratu badira ere, Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrera eta gauldi guztien % 23,2 eta % 30,4 dira.

Batez besteko egonaldia 5,04 egunekoa izan da 2021eko azaroan, 2020ko azaroan lortutakoa (8,51 egun) baino txikiagoa, baina 2019ko azaroan erregistraturikoa (3,59 egun) baino handiagoa.

Lurraldeei doakienez, batez besteko egonaldia 9,93 egunekoa izan da Araban eta 9,66 egunekoa Gipuzkoan; Bizkaian, berriz, 2,37 egunekoa.

Apartamentu bakoitzeko betetze-maila % 58,7koa izan da Euskal AEn; hau da, 2020ko azaroarekin alderatuta, ehuneko 25,8 puntu igo da.

Informazio-oharra

Landetxeen ETHIren erantzun-tasa azaroan **% 94,9koa** izan da, eta Apartamentu Turistikoena **% 84,4koa**. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei eginiko ahaleginagatik.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: Tlf.: 945 01 75 62